Leartiker

MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

# Leartikerreko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako I. Plana

MARKINA-XEMEIN, 13 de enero de 2023

HUMANITY AT WORK MONDRAGON

Dokumentu honen bidez, Leartikerreko Zuzendaritzak emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko eta erakundean berdintasun-politikak martxan jartzeko konpromiso esplizitua adierazten dugu. Honela, egungo egoeraren diagnostikoa egiteko beharrezko baliabideak eskuragarri jarriko ditugu, eta diagnostikoan detektatutako genero-arrakalak gutxitzeko bidean lanean hasiko gara, erakundeak emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan hobera egin dezan, Berdintasunerako I. Planaren bitartez.

Honetarako, esparru ezberdinetan beharrezko neurriak hartzeko prestasuna adierazten dugu: lan-baldintzetan, barne-antolamendu eta funtzionamenduan eta zerbitzuak ematerakoan, bai eta inguruko beste entitate batzuekiko harremanetan, entitatean lan egiten dugun pertsonen partaidetzarekin.

Konpromiso honek pertsonak prozesuaren protagonista eta parte-hartzaile aktiboak izatea eskatzen du, hausnarketa-prozesuak egiterakoan zein erakundean aldaketa eraginkorrak ezartzerakoan.

Konpromiso horrekin, halaber, ezinbestean ekarri behar dira lan-prozesura diagnostikoa eta plana egiteko beharrezko informazio guztia, zein langileen ikuspuntu eta iritziak. Honetarako, langileen parte-hartzea erraztu eta bermatzeko konpromisoa hartzen du enpresak.

# 1. BERDINTASUN PLANA

| ARDATZAK | HELBURUAK | EKINTZAK |
|---|---|---|
| 1. BERDINTASUNA KUDEAKETAN | 1.1. Berdintasunerako Plana erakundearen kudeaketan integratzea | 1.1.1. Urteko kudeaketa-plana egiterakoan Berdintasunerako Planean urte horretarako aurreikusitako ekintzak txertatu. |
| | | 1.1.2. Urtero memoriak egin Planaren garapenaren zein pertsonalaren datuen inguruan, adierazleen segimendua integratuta, eta web orrian eskuragarri jarri. |
| | | 1.1.3. Berdintasunerako Plana web orrian publikoki eskuragarri jarri, Leartikerreko zuzendari nagusiak sinatuta. |
| | | 1.1.4. Zuzendaritzan eta Kontseilu errektorean, gutxienez urtean behin, Berdintasunerako Planaren segimendua egin. |
| | | 1.1.5. Bazkideen batzarrean, gutxienez urtean behin, Berdintasunerako Planaren segimendua egin lankide eta bazkide guztiek erakundeko berdintasun politiken berri izan dezaten. |
| | | 1.1.6. Langile berriei harrera egiteko protokoloa definitu eta horren baitan integratu berdintasun politiken berri ematea. |
| | 1.2. Berdintasunerako Plana garatzeko beharrezko baliabideak ezartzea | 1.2.1. Berdintasunerako Planaren arduraduna izendatu. |
| | | 1.2.2. Planaren arduradunari Plana garatu ahal izateko beharrezko dedikazioa eta trebakuntza eskaini. |
| | | 1.2.3. Berdintasunerako Planeko ekintzak garatzeko aurrekontua eta dedikazioak aurreikusi urtero. |
| | | 1.2.4. Berdintasun Batzordearen jarduera eta osaera adostu eta jarraipen-bilerak sistematizatu. |
| | | 1.2.5. Arduraduna eta batzordeko kideak, gutxienez, trebatu berdintasunari buruz. |
| | 1.3. Leartikerrek pertsonen inguruan dituen datuak sexuaren arabera bereizita jasotzea eta ustiatzea | 1.3.1. Informazioa jasotzeko erabiltzen diren inprimaki, erregistro eta datu-baseak identifikatu: bisitak, ikastaroak, hornitzaileak, langileak, produkzio zientifikoa, trebakuntzak etab. |
| | | 1.3.2. Inprimaki eta erregistro-orrietan sexuaren aldagaia nola txertatu adostu eta txertatu. Irakurketa integralagoak egiteko beste aldagairik txertatu behar den aztertu (adina, jatorria, dibertsitate funtzionala, etab.). |
| | | 1.3.3. Inprimakien eta erregistro-orrien bidez jasotako informazioa kudeatzeko erabiltzen diren datu-baseak eta abarrak aztertu eta horietan ere sexuaren aldagaia txertatu. |
| | | 1.3.4. Datuak sexuaren arabera bereizita aztertu balizko arrakalak ikusarazia eta, beharrezkoa balitz, neurri zuzentzaileak hartu. |
| | | 1.3.5. Urteroko memorietan datuak sexuaren arabera bereizita aztertu. |
| | 1.4. Leartikerren kanpo-eragin kontzientzea bultzatzea hornitzaileen bidez | 1.4.1. Gogoeta egin azpi-kontratatzen ditugun zerbitzuen inguruan eta hobetzeko aukerak identifikatu. |
| | | 1.4.2. Beharrezko neurriak hartu hornitzaile edo azpikontratatutako enpresetan eragiteko: kontratazio edo lizitazioetako pleguak egokitu, hornitzailea aldatu, baldintzak adostu... |
| | | 1.4.3. Egindako lanari segimendua egin, inpaktua izaten ari garen ala ez baloratzeko. |

| | | |
|---|---|---|
| 2. KONTRATAZIOA ETA GARAPEN-PROFESIONAL BERDINZALEAN SAKONTZEA | 2.1. Lanpostu maskulinizatuetan emakumeen presentzia handitzeko estrategiak garatzea | 2.1.1. Maskulinizaturik dauden arloak identifikatu eta hauetara emakumeak erakartzeko neurriak aztertu eta alderantziz, feminizaturik dauden arloetara gizonak erakartzeko neurriak aztertu. |
| | | 2.1.2. Lanpostu maskulinizatuen kontratazio-prozesuak abiatzerakoan hasieratik genero-arrakalak kontuan hartu eta komunikatiboki emakumeen izen-emateak sustatu. |
| | 2.2. Genero-alborapenik gabeko promozio- eta kontratazio-prozesuak bermatzea | 2.2.1. Trebakuntza saio bat antolatu kontratazio-prozesuetan inplikatuta dauden pertsona guztientzat. |
| | | 2.2.2. Kontratazio- eta promozio-prozesuak definitu, genero-ikuspegia aintzat hartuta. |
| | | 2.2.3. Lan-eskaintzak egiterakoan genero-alborapenak ekiditeko neurriak hartu. |
| | | 2.2.4. Kontratazio eta promozio-prozesuetan datuak jaso eta aztertu, emakumeen eta gizonen arrakasta-tasaren segimendua egiteko. |
| | 2.3. Emakumeen garapen profesionala bermatzen jarraitzeko neurriak hartu | 2.3.1. Gogoetarako espazioak eskaini, emakumezko lankideen artean bizipenak partekatzeko. |
| | | 2.3.2. Gogoeta saioetan ateratako hausnarketa eta zailtasunak aintzat hartuta, emakumeentzako ahalduntze saioak eskaini, lidergoa eta boteretzea lantzeko. |
| | | 2.3.3. Egindako trebakuntzen inguruko datua jaso, eta genero-ikuspegitik aztertu. Beharrezkoa balitz neurri zuzentzaileak hartu emakumeen garapen-profesionala ahalbidetzeko. |
| | 2.4. Ardura-postuetan emakumeen presentzia orekatua bultzatzea | 2.4.1. Kontseilu Errektorean Leartikerren ordezkariak parekideak izateko konpromisoa idatziz jaso. |
| | | 2.4.2. Kontseilu Errektorea parekidea izan dadin sustatu, horretarako bazkide laguntzaileak emakumeen presentzia areagotzeko beharraz sentsibilizatzen. |

| | | |
|---|---|---|
| 3. LANEKO KULTURA BERDINTZALEA | 3.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ikusaraztea, Leartikerren balio gisa. | 3.1.1. Web orrian berdintasunarekiko konpromisoa adieraztea eta pixkanaka Leartikerreko dokumentuetan integratzen joatea. |
| | 3.2. Leartikerrek egiten dituen komunikazio guztiak berdinzaleak eta barneratzaileak izatea | 3.2.1. Leartikerren komunikazio ez-sexista eta berdinzalerako irizpideak adostu. |
| | | 3.2.2. Komunikazio ez-sexista eta berdinzalerako irizpideak lankide guztien artean zabaldu. |
| | | 3.2.3. Leartikerreko langileentzat, bereziki kanpo-komunikazioan arduraren bat dutenentzat, trebakuntza saio bat antolatu komunikazio berdinzalearen inguruan. |
| | | 3.2.4. Komunikazio euskarri nagusiak egokitu adostutako irizpideak aintzat hartu ditzaten. |
| | | 3.2.5. Kanpora begirako komunikazio ekintza edota ekimenetan ordezkarien arteko genero-oreka zaindu, bereziki dibulgazioa egiten den kasuetan. |
| | 3.3. Kontziliazio-politiketan sakontzea | 3.3.1. Kontziliazio-neurrien bilduma egin eta lankideentzat eskuragarri jarri. |
| | | 3.3.2. Kontziliazioaren inguruko gogoeta sustatu Leartikerreko lankideen artean: zeinek kontziliatzen duen, zer dakarren kontziliazio neurrien erabilera egiteak (ondorioak)... |
| | | 3.3.3. Deskonexio digitalaren inguruko gogoeta egin eta dekalogo bat sortu. |
| | 3.4. Leartikerreko lankideak eta bazkideak berdintasunean sentsibilizatzeko neurriak hartzea | 3.4.1. Trebakuntza eta sentsibilizazio-saioak egitea, lankideentzat irekiak, berdintasunean sentsibilizatzen joateko. |
| | | 3.4.2. Egun seinalatuetan (M8, A25, M17, E28...) erakunde-mailan kanpaina edo ekimenen bat egin. |
| | | 3.4.3. Otsailaren 11n, Emakume Zientzialarien Egunean, Leartikerreko emakumeen lana balioan jarri eta zabaldu. |
| | | 3.4.4. Sentsibilizazio kanpainak egin Leartikerren gai ezberdinen inguruan. |
| | | 3.4.5. Ikerketaren arloan genero berdintasunaren inguruko trebakuntzak antolatu. |
| | 3.5. Bezeroekin harreman berdinzale eta errespetuzkoa sustatzea. | 3.5.1. Emakumeak ahalduntzeko ikastaroak egitea, espazio maskulinizatuetan eta bezeroekin duten hartu-emanean boteretzeko |

| | | |
|---|---|---|
| **4. LAN-INGURUNE SEGURUA** | 4.1. Lan-osasuna eta segurtasuna genero-ikuspegitik | 4.1.1. Laborategietan berariazko azterketa egin lan-arriskuen prebentzioari dagokionez, emakumeen berariazko ezaugarriak eta haurdunaldi zein edoskitze garaiko berariazko ezaugarriak aintzat hartuta. |
| | | 4.1.2. Azterketaren emaitzak ezagutarazi eta lankideen artean partekatu. |
| | | 4.1.3. Protokolo berria errebisatzerako orduan emakumeen ekarpenak jasotzeko aukera eskaini. |
| | 4.2. Sexu-jazarpen eta sexuan oinarritutako jazarpen protokoloa sortzea eta garapenerako beharrezko baliabide eta egiturak martxan jartzea | 4.2.1. Sexu-jazarpen eta sexuan oinarritutako jazarpen protokoloa egin eta eskuragarri jarri. |
| | | 4.2.2. Sexu-jazarpen eta sexuan oinarritutako jazarpen protokoloaren arduradun konfidentzialak izendatu. |
| | | 4.2.3. Trebakuntza bat egin (ardura-postuetan dauden lankideekin eta aholkulari konfidentzial rola izango duten pertsonekin) sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren inguruan trebatu, sentsibilizatu, eta balizko kasu baten aurrean nola jardun lantzeko. |
| | | 4.2.4. Sexu-jazarpen eta sexuan oinarritutako jazarpen protokoloaren zein arduradun konfidentzialen berri eman Leartikerreko lankideei. |
| **5. GENERO-IKUSPEGIA JARDUERAN** | 5.1. Ikerketan eta jardueran genero-ikuspegia txertatzea | 5.1.1. Trebakuntza-saio espezifikoak antolatu genero-ikuspegia Leartikerreko jarduera-eremu espezifikoetan nola integratu lantzeko. |
| | | 5.1.2. Proiektu berriak abiatzerakoan, horietan genero-ikuspegia nola integratu daitekeen aztertu hasieratik, proiektua diseinatzen dugun momentutik, alegia. |
| | | 5.1.3. Ikerlarien artean espazio bat sortu intranetean genero-ikuspegia integratzeari buruzko zalantzak eta gogoetak konpartitzeko; modu honetara gure proiektuek duten genero-inpaktuaren kontzientzia hartu eta genero-ikuspegia txertatzen joateko. |
| | 5.2. Hitzaldi eta konferentzietan emakumeen ikusgarritasuna sustatzea | 5.2.1. Hitzaldiak antolatzen direnean genero-oreka bermatzea. |
| | | 5.2.2. Hitzaldi edota konferentzietan parte hartzera joaten diren profesionalen datuak erregistratu, jarraipena egin eta, beharrezkoa balitz, genero-oreka bermatzeko neurriak hartu. |
| | 5.3. Bestelako esperientzietatik ikasi eta saretzea sustatzea | 5.3.1. Sare ezberdinetan parte hartu praktika onak egiten ari diren erakundeekin batera |
| | | 5.3.2. Ikerkuntzan genero-ikuspegia txertatzeari loturiko jardunaldi eta seminarioetan hartzaile modura parte-hartu. |

Leartiker
MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

**Jon Anakabe Onaindia**

Zuzendari Orokorra

Leartiker

MEMBER OF BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

**ELIKAGAIEN TEKNOLOGIA**
**FOOD TECHNOLOGY**
**TECNOLOGÍA DE ALIMENTOS**

+34 946 16 91 67
eat@leartiker.com
Xemein Etorbidea 19
48270 MARKINA-XEMEIN

**POLIMEROEN TEKNOLOGIA**
**POLYMERS TECHNOLOGY**
**TECNOLOGÍA DE POLÍMEROS**

+34 946 16 90 89
polymers@leartiker.com
Xemein Etorbidea 12 A
48270 MARKINA-XEMEIN

www.leartiker.com